

Gure proiektua aurrera ateratzeko ezinbestekoa izango da honako hau jarraitzea:

Lehenik eta behin, gure enpresa aurrera eraman dezagun bazkide bakoitzak diru-sarrera bat eman eta bankuari mailegu bat eskatu beharko genioke, inbertitu beharreko kopurua handia baita. Hiru partaideek diru kopuru bera inbertituko dute enpresaren irekieran, hots, beharrezkoaren % 15. Beraz, bazkideek, %45 jarriko dute eta gainerakoa, banku mailegu bidez osatuko genuke.

Horrez gain, gure enpresaren diru sarrera, aktiboen salmentak direla medio lortuko genuke. Gure kasuan, aktiboak birziklatutako piezekin eginiko motorrak izango lirateke. Bestalde, bi ordainketa aukera emango ditugu, eskura ordaindu ahal izango da eta gainera, banku transferentzia bidez ordaintzeko aukera ere emango dugu.

Diru-sarrera hauen prezioei dagokionez, hasieran ez ditugu behin betiko prezioak ezarriko, pixka bat garestiagoak ezarriko ditugu, enpresaren gastuak egonkortu arte, baina ondoren, behin betiko prezioak ezarriko ditugu, hau da, finkoak.